

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**6/2019 Iragarkia, abuztuaren 26koa. Horren bidez argitara ematen da 2018 abenduaren 18ko 174/2018 Foru Dekretuaren bidez onarturiko deialdiko diru-laguntzak ematerako orduan 2019ko indarreko aurrekontu-muga legez finkatu ziren aurrekontu-izendapenen banaketa (deialdiaren argitalpena: 2018ko 244. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, abenduaren 20koa, osteguna).**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko abenduaren 18ko 174/2018 Foru Dekretuaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua 2018ko abenduaren 20an), oinarri arautzailak eta deialdia onartu ziren, 2019ko ekitaldian euskara informazio eta komunikazioaren teknologietan egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei diru-laguntzak emateko. Horrekin batera, honako zenbateko hauek ezarri ziren diru-laguntzotarako aurrekontu-muga legez, ondoren zehazten diren 2019ko ekitaldiko aurrekontu-partiden kargura:

- G/0406/335106/44300/0000\_2008/0040 aurrekontu-partida, ehun eta hogeita hamabost mila eurokoa (135.000,00 euro), merkataritza-sozietate, kooperatiba-sozietate, banakako enpresaburu eta profesionalentzako diru-laguntzak emateko.
- Eta G/0406/335106/45100/0000\_2008/0040 aurrekontu-partida, hirurogeita hamabost mila eurokoa (65.000,00 euro) irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuentzako diru-laguntzak emateko.

Aipaturiko foru-dekretuaren 19.1 oinarriak ezartzen du banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango dela, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua 4. eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru-agindu bidez deialdia ebatzi baino lehen aldatu ahal izango dela (2390/2019 foru agindua, abuztuaren 9koa eta 2416/2019 foru agindua, abuztuaren 19koa). Artikuluak dio, orobat, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla erabilgarri dauden kredituen aitorpena eta behin betiko banaketa, gastu-espeditetan egin beharreko aldaketak egin ondoren, baina argitaratze horrek ez duela ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.

Behin derrigorrezko izapideak eginda, behin betiko banaketa hau da:

- Ehun eta hamalau mila seiehun eta laurogeita hamabost euro eta hirurogei zentimo (114.695,60 euro) 2019ko ekitaldiko 0406 G/335106/44300/0000\_2008/0040 partidarako (merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, banakako enpresaburuak eta profesionalak).
- Eta laurogeita bost mila hirurehun eta lau euro eta berrogei zentimo (85.304,40 euro) 2019ko ekitaldiko 0406 G/335106/45100/0000\_2008/0040 partidarako (irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak).

Bilbon, 2019ko abuztuaren 26an.—Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Lorea Bilbao Ibarra